

ZURE AZTARNA DIGITALA

ZAINTZEKO CHECKLIST-A

Zure aztarna edo identitate digitala edozein gailu erabiltzen duzun bakoitzean Interneten uzten duzun arrastoa da. Bertan zure argitalpenak, argazkiak, likeak, iruzkinak eta formularioetan partekatzen duzun informazioa gordetzen da. Zure nortasun birtuala da. Horregatik, oso garrantzitsua da zaintzea eta garbi eta positibo mantentzea.



Pribatutasuna:

Ziurtatu sare sozialetako profilak zure lagunek bakarrik ikus dezaten mantentzen dituzula, eta nork jarraitzen zaituen kontrolatu.



Argitaratu aurretik pentsatu:

Selektiboa izan eta edozein pertsonak ikusteak inporta ez dizuna bakarrik argitaratu, eta gatazkak saihestu.



Egosurfing praktikatu:

Noizean behin zure izena Interneten bilatu, zer informazio agertzen den ikusteko, eta azkar jokatu zerbait negatiboa aurkitzen baduzu.



Beharrezko ez dena ezabatu:

Argitalpen zaharren garbiketa egin eta ezabatu itzazu zure buruari buruz online egotea nahi ez duzun informazio guztia.



Zure informazio pertsonala babestu:

Ez argitaratu informazio pertsonala, hala nola helbidea edo telefonoa, eta foroetan edo jokoetan ezizenak erabiltzea pentsatu. Geolokalizazioa desaktibatu.



Zure eskubideak ezagutu:

Datuak Babesteko Legeari buruz informa zaitez, eta plataformaren batek betetzen ez badu, zure informazioa ezabatzeko eskatu.



CHECK EGIN ETA ZURE IDENTITATE DIGITALA ZIURTATU

